



Iraunkortasunabuletina

2024ko otsailaren 7a, asteazkena

Zenbakia: 06


INKESTA



EHUn mugikortasuna hobetzen lagunduko diguzu?

Gure unibertsitate-komunitatearen mugikortasunari lotutako karbono-aztarna zehazteko inkesta labor batean parte hartzea gonbidatzen zaitugu. Gainera, garraioa hobetzeko aukerak identifikatzen saiatuko gara. Ez dizu 5 minutu baino gehiago emango eta **2024ko otsailaren 20ra arte egongo da zabalik**. Anima zaituzte!

DEIALDIA



Ikaslea bazara eta GrAL edo MAL bila bazabiltza, ez galdu UNICITIES 2030

Parte hartu Gasteizi 2030ean klima-neutraltasuna lortzeko dituen erronka espezifikoak konpontzen laguntzeko deialdi honetan. **Aurkeztu zure eskaera 2024ko otsailaren 20ra arte**. Zure zain gaude!

ALBISTE INTERESGARRIAK

Etikasi 2024 deialdia: Ipar Irlandara bidaiatuko zenuke?

Ikaslea zara eta Ipar Irlandan motibazio politikoko indarkeriagatiko giza eskubideen urraketen eragina ezagutu nahi duzu? Parte hartu deialdi honetan eta



bidaiatu Belfastera eta Derryra Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK).
Bidali zure eskaera martxoaren 17ra arte.

[Zure GrAL edo MAL GJH eraginarekin egitea interesatzen zaizu u4impact-ekin?](#)

U4impact programak sektore publikoaren, sektore pribatuaren, hirugarren sektorearen eta GGKEen proposamenak biltzen ditu, eta ikasleei erronka horietan laguntzeko aukera ematen die. **Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 22ra arte egongo da zabalik.** Kontsultatu informazio guztia eta ez galdu aurkezteko webinarra datorren asteartean, otsailaren 13an.

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/06/06 – 2024/06/07. [Conferencia Internacional Socioecos. Cambio climático, sostenibilidad y prácticas socioecológicas.](#)

2024/06/13– 2024/06/14. [Eredu ekonomikoaren gizarte- eta ingurumen-aztarnei buruzko Nazioarteko konferentzia \(ICSEF\): energia, materialak, justizia eta hondakinak.](#) Komunikazioak jasotzeko azken eguna: 2024/03/15

2024/06/20- 2024/06/21. [KulturGest Bilbao Kongresua: ARTEA, KULTURA ETA ONDAREA: kudeaketa eta jasangarritasunerako praktika egokiak.](#) Matrikula egiteko epea laster irekiko da.

2024/07/03 – 2024/07/05. [SEED. International Conference on Sustainable Energy Education.](#)

2024/09/08 – 2024/09/10. [VI annual International Higher Education Summit Conference \(HES\).](#) Deadline for submitting abstracts: 2024/03/30

2024/10/23 – 2024/10/24. [Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko VI. Kongresua.](#) Komunikazioak bidaltzeko epea: 2024/05/01

NEWSLETTER HAU ZURE NEEWSLETTERRA DA

2.500 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan jasangarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzera eman nahi baduzu, idatziezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.